

Olerkaria bakardadean sutuazten da
geienik. Olerkariak al dau-diño
Cerdunak- eta artista bear dau; baiña
Celliñi batekdagian a paintze goxo
ariñaren eta Migel Angelen indar
neurritzko eratsuaren artean, badaukagu
zerbaiten aldea, diferentzia.



GAURKO OLERKARIAK

Nai dana esan, artista bat —dala olerkari, naiz margolari edo-ta musikalari— beti jaku atsegingarri baizen arrigarizko. Baita berak dagian lana be. Aren lana gaur eztau edonok egingo; gaurko kulturan ez da guztiena arte-lana, ortarako jaio ta teknikaz jabetuarena baiño. Edozeinek ez dau lauki eder bat pintatzen, ez poesi zorakor bat idazten, ez musika-lan atsegiñik mamintzen. Doai berezia bear da arte-erloan zerbait egoki moldatzeko.

Bakar-zaleak

Olerkariak, poesiari emonak, geien baten bakar-zale dituzu; edo obeto: izadiarekin eta euren barrenarekin naiko dabenak dira. Soil-tatun ortakoa bizi gozo! Norbaitek, alan be, bakarrik noski, bere barruko mundu zoragarrian murgildua, egurasten bear bada, ikusi be dakus olakoa, zoro bat dala uste dau; «gaixoa!, diño aopean, orrenak egin dau».

Poeta bat sarri, uritik urrun, izadiak eta barrenak diñotsanez bizi da, begira ditun inguru ta albo-ertzak aitzurik. Era orretan azi oi dau bere barrena, bere nortasuna; gizarte-garraren izpia motelagotuz bear bada. Gizartea, baiña, lagunartearen ekintzaz azten da, baita xillean dabilleenaren aleginez be. Laster ikusten da lenengoarena, bakarrenarena ez; arena ikus-ikutu dagigu, onena ez ikusi, ez ikutu.

Orriak, bada, bigarrenaren lan ixilla gixituz jo oi dogu. Erria, bada, be, ixillan lan dagian poetaren indar-kemenak jaso dizea. Poeta dira surrenengo iraultzaile.

Olerkaria bakartadean autuzten da geienik. Olerkariak al dagoen, —diño Cerduna-k—, eta artista izan bear dau; baiña Cellini bera dagian apaintze goxo arifaren eta Miguel Anjel-en indar nabarmenaren artean, ba-daukagu zerbaiten alde, diferentzia. Zer da Barruko zerbaitena, dudarik bage. Bere egikera dau erlariak, berea nonbait, bere erikera, estetika. Erikera barriz adierazten da, barruko zerbait iragarten daukuna. Grifa da adierazten da, barne-lera, teknikak lagunduta. Nor dogu, beraz, erlari? Erri berezi batean —idazlan, margozki, etxe bat bardin dogu— beraz, gartsu ta gogartuz azaltzen daukuna. Ertilaria, barnea adierazten ezifik larri dabilenean, itxurakerietan, aizea astitzen ari dala oi dogu.

Illunak

Gaur eguneko poetak, Europa'ko errialderik geienetako olerkariak, simbolistak, ikun-zaleak, errealistak eta subrealistak dira. Zer gauzatzen dabez ikur, inudi ta antzez. Beste batzuk, inudi ta aratz izanda be, goi-maillara igon eta soillegi, abstraktoegi dabilenean, illunetan egaztu oi jakuz, eta irakurleak nekez be nekez ulertzen dau olakoaren etan-naia.

Batzuen lanak ortaz gau baltza emoten dabe, berezi ezifik dabilenean. Españiar olerkari enai Jorje Guillen-ek, adibidez, bere poema «Cierro los ojos»-en azkenean, onela diño: «...en lo negro y negro hasta una rosa»; ots: baltzean larrosa bat be lerdentzen da. Da larrosa orri? Itzaren inudikizuna nonbait. Eta ementxe degtuzuzen, oldotkun, pentsamentu tinkoa, baiña illuna.

Emen dozu idazlanaren illuna, itzal arteko ulertu-ezifia. Zer da illun-arte? Pentsamentuaren argitzerik eza; gauzea, errealitate bereziko izatek kanpo, ez dan mundua zear argirantza dinkatu burrez doana. Emen ez daukazu «errika», barne-begiak dira gilegai bezirik banatuak; agiri jakun mundua baiña aruntzagi espantaren isla, dirdir biurtzen diranak.

Onako poeten izkera ez dozu argia, ezta ixuri aundikoa be. Ber gailera, zalantzez eta itaunka dabilkigu olerkaria, bide illun sartuz doanaren antzera. Irakurleak bete bear ei ditu olakoaren itzak leak itxitako usuneak.

Aldakor eta ameslariak

Poetak orrezaz gain aldekorrak dituzuz: olerkari berberak, ez gixituz. Ba-dira baita, dirala urte bi idatzi ta esanaz, barrero irakurri oterren, lotsatzen diranak be. Oriela edo: «Ez dakit ezer, ez dot ezer gura, ez dot ezer itxaroten; eta ezer itxarotekoan, iltea bakar-bakarrik, oraindik zibillizazio zakar au, gizonak arropuzten dituan au, oraindik bertu ez dan tokian». Eta urte bi barnu, bere buruari botaten dauzoz: «Baiña, nik idatzi neban au?». Bear bada, ez; baiña urte bi geroago, bere barnuan, lerro areik idaztera saka egin eutsen eragin berbera, olerkari eta ezkututsu, somatzen edo eban. Gutartean be ba-ditugu olerkariak; G. Aresti, esate baterako.

Aldakor ez-ezik, ameslari be ba-dogu olerkaria. Leendik nik sarritan esata bego emen gaur be: Euskal lurraldea, ifori ezer kentzeka, diraganria dala. Beti dozu eder izadi bikailfaren aurrean giza-semearen kometasuna. Izadiak, alan be, era orretako gizon eta emakumetxoak opa ei ditu bere inguruan. Beronek eurrez ta oparotsu daukazan eder-etasun, indar, olerki, maitasun eta abar, azpil edo plater zuri eratzean gero dagizan, ez ete? Grieguak origaitik edo sortu zituen airbat mitu, izaki triki ta olakoak. Gurean be Lizardi-k, Arresek eta beste batzuk egin eben antzeko zerbait, eta or daukaguz gure «Baso», «Itzal», «Ludaberris», «Urdin», «Aratzife» ta gailferakoak, izadiko ireltsu ta argidun egifik. Artzain-alegi ta ipuin aldiran oitura zan izadia, inguruko lurra, mitu edo izaki bizi biurtzea.

Dirala amar bat urte poeta talde biopilla jagi zan gurean, gazteen artek atan be, goiz-argia balzen itxaropentsu jagi be. Ikus «Uhin berri». Ilun ditugu gaur? Poesi-etnatzte bildurkorra zan apika? Itzaren dantza dirudi, jagi ta kuku. Zador ta misteriozko mataza edo-ortzat. Tira, tira! Zain, gazteok! Lotsa bideratu jatze bear bada? Una erabilli eza, erdoiak jaten: ar, eskuratu ta erabil egizue azkari!

Olerkariak, egia autortzeko, ezin daukuz esate barnuan deroazan mitkun, irrirts eta gurari guztiak paperera atera. Al dana, orraitifio, otzu bear. Martzala izan oi da gaztaroa, ta biotz aundiko. Eta burujin, norberetokoi. Toton takeri, aurrera beti, goian fir-fir dagian barrari begira.

Gizartea kantagai

Gure poetak gaurkoz bide bat bera artu dabe geienak: gairik mitko dogula be, gizartea kanta bear ei dabe gagozan kinka onetan.

Aspaldiko urteetan, izan be, nun-nai, baita industriz ase jakun euska-
errian, ezin uka, iraultza garaian sartuak gagoz bete-betean. Aldaketak
biziak jo dau turuta: leenago mendi eroñetan adarra lez nunbait. Eta
adar jote orrek eskatzen dauan deira, gure lurraren deira, euska-
poetak be ernai ta adi jarri bear euren belarriak. Erria, etsaiez esitua,
galzorian dagolako deia da, urrean. Eta olerkariak, antxiñako ta
gaurko burruka-egunetan legez, ikurrin eroale, aurrelari izan bear
dabe. Leen eta orain erriaren kezka ta larrialdiak, erriaren poz eta
aurrerapenak abestu bear dabez olerkariak.

Ori orrela izanik be, areik ez eben iraultza garaian iraultza ba-
karrik kanta; maitasuna, erria, fedea, izadia... be bai, abestu eben.
Dagigun guk be olako zerbait: ez gaitezkan kuku-adar izan, tantak
abartsua baiño. Erriaren bizia ez da iraultza bakarrik, beste zer
askok osotzen dabe aren bizi-tataza. Olerkariok!, ez ekin sozial auziari
bakar-bakarrik. Kanta egizue geiago be: kanta Nor batek emonik dau-
kagun lur-sail onen gurentasuna, ditun eder-pitxi guztiakin kanta.
Ez jo danok iturri bardifera. Zugatz onak itzal ona.

Artistak

Ikatzak dagianari ikazgin deritxogun lez, erti edo artea aragitzen
ari danari ertilari edo artista esan oi dautsogu. Eta ertia, naiz mu-
sikan, naiz pinturan, naiz poemetan, ederraren adierazpena besterik
ez da. Ederrak jokatzen dau emen egitekorik garaiena.

Arira datorkit emen gai ontaz C. Baudelaire-k diñoskuna. «Ederra
beti da —idazten dau—, bear-bearrez, zati bitakoa, egin oi dauskun
zirrara, biotzondokoa bat bera izan arren». Gañera, ederraren gaiki
aldakorrak bereizi ezta be, orrek ez dau zirrara batasunean ezertan
be makaltzen zatiketa orren bear-izana. Ederraren zatietatik bata
betikoa da, aldatu eziña, zenbateraiñokoa dan jakin ezin daikeguna;
eta bestea alkar-bearra, au da, bein-beiñeko ta noz-zelakoa, ots, ga-
raiak, giroak, barrikeri naiz grña batez ezarririkoa. Lenengo zatitari
bigarren onek ezarten dautso, gurrpil soiñulariari lez, bear dauan
koipe ezta; au harik ez litzateke giza-izateari dagokiona. Zati biok
bageko ederrik ez ei da ezagutzen.

Olerkaria, esan dogunez, artista da. Ederra somatu, sortu ta adie-
razten dausku. Eguzkiak erraiñuak bialtzen ditu, mundua gili-gili
gozo leunez itxartu ta esnatzeko. Olerkariak erabat, bere poema
gartsuz, argia banatu, iraurri ta edazten dau gizadiaren ezkutuzko
bizkar gain.

Arte-lana ez ei da, R. U. Emerson-ek dirauskunez, munduaren bil-
duma edo laburpena besterik; izadiaren (natureleza) adierazopena
txikika edo tantaka. Poetak zerbait nai dau bere lanakaz, Zer? Maite
dau edertasuna, eta maitasun ori ase nai dau ederra sorturik. Ori
dozu poesi bat geienez, gizadia gizonaren jario-ontziz ixuria. Arte-
lanetan, gizonaren naiaren bitartez dizdiz dagi izadiak. Beraz, mun-
dua mundu da, gure arimeak bere eder-guraria ese dagian.

AITA ONAINDIA

Bereziartua Argazkiak

Ezkontxak eta Etxeko Jaietan

Argazkiak egiteko trezuak

Jaietan zabalik 9'tatik 12'etara

ZORNOZA